


SARKO PIKUTARAT!

1. ZENBAKIA 1 €



Estatu
buruei
iraina
?





ALDAKETA KLIMATIKOAK

HILTZEN NAU

RIO+20 2012ko ekainaren 15etik 23ra
SISTEMA ALDA DEZAGUN, EZ KLIMA !

bizi 

info@bizimugi.eu
www.bizimugi.eu

SARKO PIKUTARAT!

Gaur *Sarko*, ondokoetan *Püba*, *Zorra*, *Karbona*, *Nuklearra*, *Betiplitza*, *etab.* ere Pikutarat!

Bizi! mugimendu altermundialistarentzat argi da kultur/hizkuntz aniztasuna ezinbestekoa zaiola jendarte demokratikoari, aniztasun biologikoa ekosistemari ezinbestekoa zaion bezainbat.

Bizi!n, euskaldunak, Iparraldeko jendartean euskaldunak bezala, guttiengoan izan arren, jada hainbat tresna martxan ezarriak ditugu euskararen bizi arazteko eta Bizi! kideek beren militantzian ere euskaraz bizitzeko parada ukan dezaten: komunikatu gehienak bi hizkuntzetan plazaratuak dira, hainbat txosten ere elebidunduak dira, eskualde batzutako bilerak euskaraz egiten dira, *etab.* Hori guzia posible da besteak beste Bizi!ko euskaldunek osatzen duten Itzulpen Taldearen lan paregabeari esker.

Pikutarat aldizkaria sortzeko erabakia hartu da 2012 hastapeneko Biltzar Nagusian Bizi!ko kide euskaldun eta erdaldunei euskaraz ibiliko den gune eta giro baten eskaintzeko! Hots, arlo sozial eta ekologikoko hainbat gai jorratuko dituen aldizkari hau, euskarazkoa izanen da, euskalduner zuzendua eta euskaraz pentsatua eta landua.

Bizi!kide ta lagunentzat euskaran murgiltzeko eremua izanen da: paperezko eta internetezko euskarriekin lau haizetarat zabaldua izanen dena.

Bizi!ren gogoeta eta ekintza ildoetan Pikutatraren bidez arizan nahi duten guzier ongi etorria egina zaie, datorren alearen prestatzeko jada finkatua den bilkurarat: **Ostegunean, maiatzaren 31an, arratseko 19:00etarik goiti, 20 Cordeliers karrikan!** Karia hortarat, ekar gustian denen artean partekatzen ahal diren jateko eta edatekoak...

Pikutarat bloga : www.pikutarat.eu

Batukada :

Bizil-k batukada bat badu :

kontra-gailur, ekintza, elgarretaratze, manifestaldi... alaitu/animatzeko!

Rythm of resistance batukada militanteen europar sareko kidea da, erritmo eroak gustuko dituzten guzieri idekia da!

Errepikak Miarritzeko gaztetxean egiten dira asteazkenetan bi astetik behin, 19:00etatik 21:00etara (xeheetasunak mattin_eli@kaixo.com 06 74 75 57 70).

Heldu diren ateratzeak : maiatzaren 1eko manifa, maiatzaren 6a Sarkozy kanpora, ekainaren 21a Baionan musikaren besta eta RIO+20 gailurra, Baionako bestak...

ZATO GUREKIN!

BATUKADA BIZI !
Kontra-gailur, ekintza, elgarretaratze, manifestaldi... animatzeko! Rythm of resistance batukada militanteen europar sareko kidea gira.

Erritmo eroak gustatzen zaizkizu? ONGI ETORRI !

+ info : 06 74 75 57 70 - mattin_eli@kaixo.com

ERREPIKAK ASTEAZKENETAN, MIARRITZEKO GAZTETXEAN
19:00etatik 21:00etarat, bi astetatik behin



**Max Brisson,
departamenduko
UMPren idazkariari,
Bizi!ren gutun idekia :**

Tokiko prentsaren bidez gogorki arizan zira gure kontra. Zure hitzen arabera, leporatzen diguzu « Sistematikoki Errepublikako Lehendakaria den Nicolas Sarkozy jauna zikintzea » gure egiazko itxura « ezker muturrarena » horrela plazaratuz, hots zernahiren itxura salbu fartsarako ezpiritua duen elkarte ekologista batena.

Bizilk « Sarkozy kanpora, Milesker Baiona! » kanpaina jarraitu nahi baitu, datozen egun eta asteetan, eta ez baitugu nehondik ere nahi horrek zugar sor dezan sabeleko ultzera bat edo tentsio arterial mailaren sekulako goititze bat, nahi genizuke gutun ideki honen bidez zombait elementuren erlatibizatzeke parada eskaini:

1) Kanpaina honen karietarat ez dugu inondik ere aurpegi berri bat plazaratzen, 2009ko uztailan, Bizi!-k burutu lehen ekintzetako baten helburua, Biarritzeko UMPren egoitza «Gehiago lan egin = Gehiago satsutu. Igandetako lanari ez!» afitxa polit batzuekin berriz apaintzea izan baitzen. Hori egin izan zen UMPko gehiengoak igandeko pausaren indargabetzea ahalbidetzen zuen legea parlamentuan bozkatu zuelarik. 2010eko martxoan, Nicolas Sarkozy jada karikaturizatu ginuen, Laurence Parisot, MEDEF-eko buruarekin xanpaña edaten, Karbono Taxa eta Ingurumenaren Grenelle-aren ehorzketen ospatzen ari zirela. Ber maneran, karikaturizatzen jarraitu dugu erretretaren adinaren

atzeratzearen aurkako mugimenduaren garaian, orduan erakutsi baikinuen Nicolas, eskuz esku Guillaume bere anaiarekin. Guillaume delarik erretreta pentsio pribatuen sustatzailea, hots erretretaren erreformaren lehen irabazlea! ...2010eko maiatzetik beretik burutu eta geroztik erregularki erabilia izan den « Sarkozy y'a bon la croissance ! » banderola aipatu gabe.

Garai guzi horretan, zuk diozun bezala, Bizi! elkarte gisako bat bezala agertu bada tokiko jendarte eta hautetsiengan, horrek berdin ximpleki erran nahi du Nicolas Sarkozy-ren politika jendearengandik errotik ezatsegina eta onartezina dela!

Unis pour le Medef et pour le Pire !

Nicolas Sarkozy, UMPren lehendakaria, gaurko erretreta sistema suntsitzen ari da. Ber denboran, Guillaume Sarkozy (Nicolas-ren anaia), Medef-eko enpresaburu haundia, erretreta pentsio pribatu erraldoi baten plantan ezartzen ari da, 40-100 miliar eurokoa, erretreta osagaien merkatu probetxugarrian.

Hola bederen, egoera argi da!



**GURE SISTEMA SOZIALAREN PRIBATIZAZIOAREN
KONTRA MOBILIZA GAITEZEN !!**



2) Ez dugu gure burua neholaz ere muturretako militantetzat jotzen, baina alderantziz, errotik moderatu, pragmatiko, humanista eta errealistatzat. Guretzat, muturrekoa bizatearen joerak « Ingurumena, hasia da gure aspertzen ! » erratera bultzatzen du, komunitate zientifikoak abisatzen gaituelarik molde ezin ofizialago batean abiadura handian ari girela klima aldaketa erraldoi bati buruz. Muturreko joera bat da beti pentsatzea gero eta fiteago murrura joaiten ahalko girela, 3 planeta kontsumituz, bat bakarrik dugularik, sinestea mugagabeko hazkunde bat eramangarria dela mundu mugatu batean. Muturreko joerak jendarte barnean ezberdintasun sozialen handitzerat bultzatzen du, bai eta aberatsenen zergen ttipitzerat eta horrek sortzen duen zor publikoaren ordainketa pobreener ordainaraztea. Muturreko joera bat ere, jada lan bat dutenak « gehiago lanean arrarazteera », 5 milioi pertsona lanik ezin atxemanetz ari direlarik. Brisson jauna, esker gaitzazu, muturreko joera horiek guziak borrokatzen baititugu!

Gutun ideki honi esker lortu badugu zu iritziz aldaraztea eta zu lasaitzea, orduan gomitatzen zaitugu gurekin irri egiterat eta lasaitzerat maiatzaren 1ean asteartearekin, goizeko 11etan Baionako San Ispiritu zubian hasiko den «Sarkozy kanpora, Milesker Baionak!» manifestaldi umoretsu eta alaiturat. Ikusiko duzu, on egiten du untsasko « laxatzia », bost urtez hein hortako bortxa sozial, ekologiko eta askatasun-desagertzailearen ondotik!

Bizi !

SARKOZY
l'esclavagiste moderne :
TRAVAILLER
7 JOURS SUR 7
JUSQU'À 77ANS !




y'a bon ...
LA CROISSANCE !!

bizi !

SARKOZYX BAIONAN !



**GIZATXAR !
CASSE TOI. POV'CON !
MUSULMANO ITXURAKOA !
TXORIGALDU !
TERRORKTAK !**





Bon, orain aski da, Sarkozyx horrek bazterrak nahasten ditu pasatzen den toki guzietan.



Gainera, Itsasuko laborariak aberatsak direla dio, hark 2,7 milioi euro bankuan badituelarik !

BONG!



"ingurumena, aski entzuna dugu orain", hori Idefix-ek ez zuen batere maitatu

Ikusiz gure klima zer egoera larrian den, ahalgegarria eta zentzugabekoa da horrelako gauzak erraita.



Maiatzaren 1ean, herri guziak manifestatuko du "Sarkozyx kanpora" oihukatuz.

Hitzordua 11:00-etan St-Esprit-n, geltokia ondoan

5A



Eta maiatzaren 6an, arratsaldeko 6etatik goiti, apairu bat antolatua izan zen Baiona Ttipian, orain eta beti amore emanen ez duen herrian...

Azkenean guttiago entzuten dugu aberatsen lehendakari hura...

Omen batzuek Baionatua izan dela diotela...

Huu ?

"SARKOZY KANPORA !" MANIFA. MAIATZAREN 1AN, 11:00ETAN BAIONAN SANTA ESPIRITU ZUBIAN, GELTOKIAREN ALDEAN ZATOZTE DENAK !



Sarkozy Kanpora !

Milesker Euskal Herria !

Joan den Martxoaren 1ean, Baionak Nicolas Sarkozyri oihukatzen zion ez zela nehola ere ongi etorria Euskal Herrian.



Horrelako harrera bat aurreikus zitekeen, Nicolas Sarkozyk azken 5 urte hauetan gaindi Euskal Herriarekiko izan duen joera ikusirik.

Izan ere oroitzen gara nola gobernu hau entseatu den Euskal Herriko Laborantza Ganbara itotzen, hau bidezko laborantza iraunkorra defenditzeko sortua izan delarik, Laborantza ofizialak sustatzen duen eredu produktibistari aurre eginez. Urteetako jazarraldi administratibo eta bi auzi penalean EHLGren debekua eta Michel Berhocoirigoin honen lehendakariaren presondegiratzearen arriskuarekin.

Baina Laborantza Ganbarak finki atxiki du. Herri mobilizazio eredugarri bati eta anitza bezain ugari gertatu diren sostenguei esker, EHLG-ek kausitu du Estatuari gibel eginaraztea. Estatua trufagarri bilakatuko da segidako bi auziak galduz. Sarkozyk oroitu beharko zukeen Euskal Herrian usu sorpresak gertatzen direla!



Baina ez da biziki iraganaz oroitzen! Oraingo kanpainaren kari erreferenduma

goraipatzen duen lehendakari-hautagaiak iduriz ahanzi baitu Euskal Herriko 36 000 hautesleek, hauteslegoaren % 15, eskatu lurralde elkargo berezi bati buruzko bozketa demokratiko bat antolatzea ez duela onartu! Eta gainera entseatu da, haren prefetaren bitartez, herri bozketa debekatzea. Bozketa hau hala ere antolatua izan da 2010eko martxoan, ipar Euskal Herriko 124 herritan! Ezezko borobil berdinak adierazi die ere AHT linea berriari buruz antolatu erreferendumei, eta hau egitasmo absurdo honen kontra argiki agertu diren hautesle gehiengo zabalari elkor egonez.



Azkenik, Nicolas Sarkozyk ez du deus egina izanen ere bortizkeriarik gabeko elkarrizketa egoera bat sustatzeko Euskal Herrian. Euskal presoen hurbilketa gisako neholako baketze keinurik. Alderantziz, geldigeldia ibili da garren gainean ufatzen, horrelako bake prozesu baten sustatzaileak etsiarazteko arriskua hartuz. Gaitzago, gaur egun oraindik gauza bera egiten segitzen du, behin betiko su-etenak aldarrikatuak izan arren, eta Baionara etortzen delarik, terroristak asmatzen ditu, borroka armatua berpiztu dadin nahi izan balu bezala.

Ez, Euskal Herriak ez du guduzalaren beharrik baina bai bakearen aldeko gizon eta emazterena, mundu zuzenago, partalierrago, ekologikoago, gizatiarrago, iraunkorragoa eraikitzeke gutiziaz animaturik. Hori dio adierazi herri honek Nicolas Sarkozyri joan den martxoaren 1ean, ostegunarekin, eta hori erreplikatu beharko zaio etengabe heldu den maiatzaren 6a arte!

Egun horretan orduan ospatuko ditugu Sarkozyren abiatzea eta Baionaren garaipena!

"Sarkozy kanpora, Milesker Baiona !" **kanpainaren azken hitz-orduak:**

Maiatzaren 1ean, asteartearekin, 11:00etan Baionan, "Sarkozy kanpora Milesker Baiona!" manifa girotsu eta aldarrikatzailea: hitz ordua San Izpiritu zubiaren puntan geltokiaren aldean, zatozte denak zuen tresna, perku, egitasmo artistiko, mozerro, pano aldarrikatzaile, keffieh, ikurriña, bandera berde, gorri, ubel, beltz, kolore guzietakoekin!



Maiatzaren 6an, igandearekin, Nicolas Sarkozyren abiatzea ospatzeko hurrupaldia Baiona Ttipian: hitz ordua 18:00etan, Patxokian : Senegal-etik dator "Y'en a marre" mugimenduko bozeramailea den Simon Kouka raperoarekin : kontzertua, mintzaldia eta bideo labur bat. Ondotik emaitzak segitzen ahalko dira auzotegiko hainbat lekutan eta poteo alaitua Sarkoren abiatzea eta Baionaren garaipena ospatzeko!

SARKOZY KANPORA !
Behin betikotz !

2012.05.01
*Maiatzaren
1ean asteartearekin*

MANIFESTALDI
KOLORETSU ETA ALDARRIKATZAILEA

Baionan  *goizeko 11etan*

Hitzordua Baionako San Izpiritu zubiaren puntan geltokiaren aldean





Michelle Alliot-Marie :

*"Ixil ixilik eon balitz
parlamentu xokoan...
guttiok jakinen zuten,
nolakoa den gaixo MAM!"*

Joan den urteko urtarril hastapenean, frantses Parlamentuan MAMek, Ben Ali Tunisiar buruzagiari, azken hunek errepresio gogor bat pairarazten zuelarik Tunisiarrer, hara zer elkarlan proposamen luzatu zuen:

"Nous proposons que le savoir-faire qui est reconnu dans le monde entier de nos forces de sécurité permette de régler des situations sécuritaires de ce type."

Hori aski ez balitz bezala, Frantses Estatuak dituen kooperazio akordioen karietarat, Algeria eta Tunisiari proposatzen zien eragitea, manifestatze eskubideak segurtatzeko eta segurtasun orokorra atxikitze gisan...

Errepresioak biktimak hamarnaka egiten zituen unean, MAMen elkartasunaren adierazpenak dudarik gabe hunkitu du Tunisiar populua!

Urte baten buruan, mundu mailan arrakasta duen "segurtasun egoeren konpontzeko egiten-jakite frantses hori" lagun, MAMek hainbat alderdi adixkide gomitatu ditu Frantziatik Euskal Herrira, joan den martxoaren 1an!

Merci pour la
visite sécurisée à
Bayonne !! si ce coup
ci, je Finis
pas comme Ben Ali
La MAM, je me
la Karshenise!

Si j'aurais su,
j'aurais pas
venu!



Baionako bisitan hartu den argazki huntan, argi ikusten da MAMen lagunek zombait duda dituztela sinesgarritasun gero eta gutiago duen haren hitzaldi komertzialan!

*"Zergatik, zergatik, zergatik, zergatik?
Zergatik negar egin ?
UMPn "bazarra" dago,
ta ordian gu pozik!"*

Ikaragarpenak :

SALGAI, PATEK-PHILIPPE 5140 G ordularia, gutti erabilia, 55.000 € balio du, 40.000 eurotan uzten dut (edo elefante safari baten kontra Bostwanan). Harremana: Nicolas Bruni, Palais de l'Elysée, 75000 Paris (Maiatzaren 6a arte).

HUMANITARIOA: Libiako populuaren alde, Ozeanoko ura gatzgabetzeko zentral nuklearrak salgai (beti ere prezio apalean). Opari gisa, 14 Rafale hegazkin! Ez gal aukera!

TRUKATZEKO, 40 hektareako baserria 2 milioi 700 mila euroko banku kontu banten kontra. Idatz ezazu Itsasuko Herriko Etxerat, proposamena segi araziko dugu.

TRUKATZEKO , 500.000 € V.I.P. toki baten kontra Baionako Bestetako Korridan. Alain Afflelou 64200 Biarritze.

AHT-rik ez ! :

Abiadura Haundiko Treina, edo gizarte eredu baten hautua. Haien helburua? Europa egituratu komunikazio bide berriak eraikiz megapolo haundiak sortzeko (Bruxela, Parise, Bilbo, Madrile...), beti fiteago eta urrunago, desmaxia ekologiko alimaleko jakinak nahitara guttituz, ekonomia sustatu (hirugarren sektoreko enpresak etorrazazi, AHT-aren eraikitzeak hazkundera sortzen du), tokiko behar eta ohiturak zangopilatuz, diru publikoarekin eraiki azpiegiturak pribatu batzuen etekinentzat egitea normala dela pentsatuz...



Bainan hau ez da posible... mugatua den Lur huntan, gelditu ezinezko hazkundera ez da posible! Gainera, pairatzen ditugun krisi sozial, klimatiko, finantziero, energetiko eta ekologikoak pil pila ditugu eta proiektu horrek ez du batere tokiko biztanleen beharrei erantzuten. AHT bezalako azpiegitura erraldoien eraikitze guziak berehala gelditu behar dira!

Treinbideak beste etorkizun oparoa badu alta : tokiko beharrei erantzutearena (pertsonek tokialdatzeak eta merkantziak tokiko ekonomia sustatzeko). Eskualde bakotzak, Frantzia, Alemanian, Euskal Herrian...bere beharrei erantzuteko behar luke hasi aztertzen nola egokitu krisi horiei gizartearen egiazko beharrei erantzunez, eta gelditu murrurat eremaiten gaituen lasterketa hori !

Garoña :

Arabatik 4 kilometro eskasera, Burgosko eskualdean kokatzen da Espainiako zentral nuklear zaharrena, Euskal Herriak hurbilen duen zentrala da. 60 hamarkadako teknologiarekin eraikia, 1970ean hasi zen elektrizitatea ekoizten. 40 urtez problema andana bat sortu du :

hondakin erradiaktiboak Ebro ibaian, Ebroko arrainetan, ur-landaretan, materialaren higadurak istripu larrien arriskua emendatzen du... Bere teknologia ez da batere fidagarria (Chernobyl baino zaharragoa), Ameriketako Estatu Batuek jadanik debekatu dute.



Horri gehitu behar zaizkio nuklearraren alde ilunak : zer egin milaka urtez aktiboak egoiten diren hondakinekin? Zenbat diru suposatzen du zentrala martxan atxikitzeak? Herritarren gehiena kontra da, bainan beste behin interes pribatu batzuetzat (kapitalaren erdia Iberdrola eta Endesa enpresena da), arrisku izugarriak hartzen dira, aintzinamendu, hazkunde eta modernitate hitzak goraipatuz. Alta, eredu energetiko zahar hori gaurko erronkei egokitu behar da. Bada garaia Garoña hesteko! Nuklearretik atera behar da berehala!



Ekoizpen eta kontsumo ereduak errotik berrikusi behar dira. Guttiago eta hobeki kontsumituz, energia berriztagarriak erabiliz, posible da eta enpleguak sortuko ditu gainera!


Tokiko euskal moneta ekologiko eta solidarioaren proiektua
Zuen moneta da, haren izena hauta ezazue!

ZAZPIETATIK BAT !

Euskal Herriko jendarteak proposatu dituen 328 izenetan, 7 hautatuak izan dira ingurumenaren eta euskararen defentsan, ekonomia eta tokiko garapenaren munduan, banatze sare labur eta komertzio ttipietan, laborantzan, arlo sozialean, kulturean eta kirolan engaiatuak diren tokiko pertsonalitatez osaturiko epai mahaiaz. Hara beraz zein diren:

Gehienik maite duzuen izenarentzat bozkatzen ahal duzue maiatzaren 10a arte :

- | | | |
|--|---------------------------------------|---|
| ☐ Sos | ☐ Eusko | ☐ Ttantto |
| ☐ Libera | ☐ Piku | |
| ☐ Esku | ☐ Bihi | |



- gure webgunean: www.euskalmoneta.org
- gutunez (izen bat, eta bakar bat, hauta):
AMBES, Cordeliers karrikako 20a, 64100 Baiona

Herri Urratsen ere bai, maiatzaren 13an, 9etarik 15ak arte izanen diren bozka kutxetan (Artesauen xokoan, sartze nagusiaren ondoan) bozkatzen ahalko duzue. Arratsaldean berean 17:00etan behin behineko izena publikoari ezagutarazia izanen da.

PIKUTARAT!

Hitz ttipi bat :

Pikutarat fanzina sortzeko biltzen den taldea deneri idekia da! Heldu den bilkura Baionan iraganen da, maiatzaren 31an ostegunarekin 19:00etan, Bizi!-ren lokalean (22 Cordeliers karrika Baiona Ttipian).

Zato gustian!

Nafarroaren Eguna 2012



Nafarroak Euskal Herriaren azaleraren %56a ordezkatzeko du, eta biztanleriaren %20a inguru. Baxe Nafarroak berak EHren azaleraren %6,3a eta biztanleriaren %1a eskas. Baina aurten ere Baigorriko Nafarroaren Egunak bihotzak gorputz batentzat duen ber garrantzia ukanen du. Tokiko hautetsiek ez badute argi edo senditzen ere, Baigorriko Kulturaldiak Nafarroa eta Euskal Herri osoari bihotz-taupada osasungarria ekarriko du berriz ere! Eta luzaz beharko du ekartzen segitu.... zeren bada lan ber(t) dena animatzeko!

Hilabeteko elkarrizketa :

« Pikutarat » egunkariak ez ohizko elkarrizketa bat lortu du aste huntan! Nazioarteko kazetari eta egunkari guztiak bere gibeletik dabiltzaten hune honetan, GUK (... eta bai, gure egunkari sumeak) eskusibari Juan Carlos de Borbon espainako errege eta Estatu buruzagiaren hitzak jasotzeko aukera izan dugu...

Pikutarat : Gau on, jauna, berriki zure suhia, orain zu... Borbon familiak arrakasta handia dauka azken garaiotan komunikabideetan...

Juan Carlos de Borbon : Bai, familia garrantzitsua gira, espainako buruzagiak...

P : Bai, ados, baina, ez da bakarrik hori....

JCDB : Sakrifizio asko egin dugu gure mendekoentzat... euh, herritarrentzat.

P : Gogoratzen zira, elefantea... Botsuana... tiroketa... lerratzea... zangoa haustea ???

JCDB : Ah, bai... nire sendagileak errana du jadanik... sakrifizio espiritu eta kemen handia erakutsi dut... oso zaila izan da... mina handia ukan dut!



P : Baina, errege... eta krisia pairatzen duten herritar guzti horiek zer ?

JCDB : Beraien sakrifizio espiritua eskertzen dut, biziki... nahi duzu pote bat?

PS : *Elkarrizketa surrealizatzen hartzen dutenentzat, jakin dezaten, goizeko biak zirela erregearekin topo egin genuelarik, eta, ez bagina garaiz iritsi, espainako monarkak bigarren estropezu ikaragarri bat pairatuko zuela.... Baina, hori beste aldi batez aipatuko dugu berekin... beno, bi hitzeko esaldi bat egitea sakrifizio handiegia ez bada beretako !!!!*

ONETIK ala MAL'ONETIK?

LES FROMAGES

ONETIK

70% 100% Basque!

Soldes monstres en janvier
Avec moins de lait d'origine basque par fromage!



25 urtez hainbat elkarte eta mugimenduk
baliatu duten ostatuak xutik dirau!
Patxoki ostatuaren (23, Tonneliers karrika)
heldu diren idekitzeak :

Maiatzaren 6a igandea 18:00etatik goiti :
Y'en a marre kolektibo Afrikarrarekin gualdia +
hauteskundeen emaitzen segitzea

Maiatzaren 12a larunbata : pintxo eguna
18:00etatik goiti

Ekainaren 21a osteguna : musikaren besta,
kontzertuak Patxokin

Uztailaren 25etik 29rat : Baionako bestak
Patxokin

Hilabeteko erran zaharra :

Sobera sakatu,
zorroa lehertu !

ZERNUNTANOIZ...

* **Baigorriko Kulturaldia**, apirilaren 13tik
29rat. Nafarroaren Eguna, apirilaren 29an

* **Zea Mays eta Willis Drumond-en**
kontzertua, Hazparneko Ttattolan (10garren
urtebetetzea !), **Maiatzaren 5an.**

* **Maskarada**, Gamere-Zihigan, Xiberoko
Ikastoletako Ikasle Ohien Elkartek antolatua,
Maiatzaren 6an.

* **Euskal moneta, ekologiko eta
solidarioa :**
Tokiko monetaren proiektuaren aurkezpena
eginen dute datozen **bilkura publikoak :**

- **Donibane Garaziko Herriko Etxe**
ondoko Gune Administratiboan: **ostiralean,**
maiatzaren 4an, 20:30tan

- **Mauleko Zerbitzuen Gelan: ostiralean,**

maiatzaren 11an, 20:30tan

- **Donibane Lohitzuneko Maitena**
Trinketean : **larunbatean, maiatzaren 12an,**
10:00etan.

- **Donapaleuko Herriko Etxeko Gela**
Berdean: **asteazkenean, maiatzaren 16an,**
20:30tan

* **Zinkako kontzertuetarik bat: THE**
BRANLARIANS taldearekin (rude rock-
reggae-ska, Gers)

Arramaiatazen 2an , Zinkan gaüeko
10etan

- **"La Planète n'a pas de prix ! Le
capitalisme vert"** mintzaldia.
Geneviève Azam (Attac-eko
Kontseilu Zientifikoko kidea) Baionako
IUTko anfiteatroan, San Andres
Plazan, **asteartean, ekainaren 5an.**

**Zernuntanoiz... laster gure
blogan!**

- **Pikutarat bloga :** www.pikutarat.eu

Hilabeteko gadjeta



Hilabeteko gadjeta

Hilabete huntako gadjeta nola erabil?

- 1, Orrialdea kartsuki alreratu
- 2, Aistur batzuen bidez erdian den borrobila motz
- 3, Piketa zorotz edo burtin erdoildu bat aukeratu
- 4, Ahal bezain errespetuikin SARRARAZI !



SABKO PIKUTARAT!